

Korrika 11 1+1=hamaika

# Euskarazko irratitari omen

*Korrikak Euskalerria Irratia omenduko du gaur, eta 24 ordu euskaraz irratsaio historikoa emitituko da*

Jone Larrañaga / Donostia

Makina bat ozotopo gainditu eta ahalegin egin behar izan du Euskalerria Irratiak hamar urtez egu-  
nero Iruñerriko etxe eus-  
kaldunetara iristeko. Hamaika ahalegin horiek eskertzeko omenaldia egingo dio gaur Korrika 11k. Baionan kilometro bat korrituko dute eguerdian irratiko langileek. Gauerako, berriz, orain 23 urte egin 24 orduak euskaraz irratsaioaren laburpen berezi-berezia prestatu dute. Euskal Herriko 17 irradi euskaldunek aireratuko dute saio hori gaur gauean.

HILAREN 27 honetan beteko dira 23 urte Herri Irratiak 24 orduak euskaraz irratsaio gogoangarri hura egin zuenetik. Urteurren hori kontuan hartuta, Euskalerria Irratiko langileek saio berezi-berezia prestatu dute, hain zuzen ere, Korrika 11k euskarazko irratigintzari omenaldia egiten dion egunean bertan aire-ratuko dena.

Euskalerria Irratiaren seinaleak Iruñerria eta inguruak hartzen ditu. Saio berezi hori, ordea, Euskal Herri osoan entzun ahal izango da, euskaraz emititzen duten beste 16 irratik ere zabalduko baitute elkarrekin eta aldi berean: Donostia eta Loiola Herri Irratia; Euskadi Irratia; Bizkaia Irratia; Xiberuko Botza; Irulegi Irratia; Arrate Irratia; Segura Irratia; Arrasate Irratia; Bilbo Hiria; Xorroxin Irratia; Irati Irratia; Aralar Irratia; Karrape Irratia; Esan-erran Irratia eta Gure Irratia.

Ilunabarreko 20:00etatik aurrera dila irradi horietako baten frekuentziara mugitzea besterik ez da izango, beraz, 1975eko festa gogoangarri hura gogora ekartzeko. Jaialdi hura asmoa handiago baten zati izan zen. Gauerditi hasita hitzaldiak, mahai-inguruak, kronikak, bertsoak eta beste hamaika ekitaldi eskaini ziren irratiz, harik eta gauean Donostiako Belodromoan egin zen jai handiak aldarrikapen ekitaldi asmo handiko hura burutu zuen arte.

Euskaldunen artean, du-



BOB EDME

Euskaraz emititzen duten Euskal Herriko irradi guztiek egingo dute bat gaur Korrikak Euskalerria irratitari egingo dion omenaldiarekin.

darik ez, indar pizgarri izan zen jai hunkigarri hura, gaur egunean Korrika den bezala. Euskararen aldeko gaurko jai handi honetan orduko haren testigantza bildu nahi izan dute bada.

Donostia eta Loiolako Herri

Irratiko artxiboetan altxor baten parean gordeta duten zinta berreskuratu dute, eta han bildutako hitzak, hotsak eta doinuak esnarazi.

Saioa, nolana ere, moldatu egin dute. Irratsaioa bi ordutara laburbildu dute, eta

orain 23 urteko hitz eta abestiei gaur egungo testigantzak gehitu dizkiete.

Hala bada, eta esate baterako, Joxe Ramon Beloki entzun ahal izango da orain dela 23 urte aurkezpenak egiten, eta orain orduko oroi-

tzapenen berri ematen. Mikel Laboa eta Benito Lertxundik ere ekarriko dituzte gogora Anoetako Belodromoan bizitu zituzten une hunkigarri haiek, baita Gontzal Mendibil, Peio Ospital eta Joxean Artzek ere.

Juan Lekuona • HERRI IRRATIKO ZUZENDARIA •

«Erakutsi genuen euskaraz egin zitekeela irratigintza»

■ **Zer giro zenuten garai hartan? Zergatik erabaki zenuten irratsaio hura egitea?**

Euskararekiko kezka handia zegoen gure artean. Joxe Ramon Beloki orduko zuzendariordea jada urtebete lehenagotik ari zen esaten zerbait probokatiboa egin behar zela. Hala erabaki genuen 24 ordu euskaraz emititzea. Helburua zen etorkizuneko euskara hutsezko irratia aldarrikatzea. Bide batez, errepasoa eman genion euskararen alorrean garai har-

tan egiten zenari: mahai-inguruak izan ziren, hitzaldiak..., eta amaiera ekitaldi gisa: jaia.

■ **Zein zailtasun izan zenituzten?**

Madrilatik nahi zuten bakarrik Loiola irratitik zabaltzea. Guk ezet: Loiola eta Donostiatic emitituko genuela. Jarrera gogorra hartu zuten, eta exijitu ziguten dena zentsuratik pasatzea. Jakina, dena ez genien bidali, grabatutako gauza jakin batzuk baino ez. Jaian bertan Guardia Zibilak ingu-

ratu egin zuen belodromoan. Gogoratzen dut Mariano Ferrer haiek baretzen egon zela barrura sar ez zitezen. Barruan jendea bero-bero zegoen; ikurrina atera zen... Larritasun ederrak pasa nituen, baina dena ongi aterazen.

■ **Ekimen berria izan zen, aitzindaria, eta etorkizunari begira prestatua. Zein ikuspegi duzu gaur egunetik?**

Ordura arte euskarak oso leku urria izan zuen irradian, eta guk nahi genuen euska-



ra ate handitik sar zedin lortu. Erakutsi genuen irratigintza euskara hutsez egin zitekeela. Urrats oso zaila zen profesionalki, baina gerora ikusi da posible dela.